Sagu txiki batek jolasteko lagun bila egiten duen ibilbidea da ardatza, eta horretan hainbat animalia buztanekin egiten du topo —marroi, berde, iletsu, lumatsu...—, baina inork ez du harekin jolastu nahi. Haurrarekin batera orrialdez orrialde aurrera egin ahala, koloreen eta formaren bidez identifikatzeko erronka txiki bat sortzen da. Eta amaieran, sorpresa goxo batek esanahi berri eta hunkigarria ematen dio ipuinari.

Carleren ilustrazioek, collage teknikaz egindakoek, haurtzaroko arte plastikoaren poza gogorarazten digute. Gainera, bere azal gogorak eta orrialde sendoek erabilera erraza eta iraupen luzekoa bermatzen dute, eta amaierako ukitu poetikoak helduarengan ere irribarre bat piztuko du.

Nirekin jolastu nahi duzu? ez da galdera bat bakarrik. Gonbidapen bat da: haur-literaturaren magia partekatzeko, jolasa eta elkartasuna ospatzeko, eta, azken batean, emozioz beteriko une txikiak bizitzeko.

Dautremer, Rébecca

Jakomintxo

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Durango: Ibaizabal, 2024

ISBN: 978-84-1370-614-6

Jakomintxo nolakoa den —jatorregia, agian?— azaltzen da adierazkortasun handiz osaturiko album ilustratu oso zaindu honetan.

Ilustrazio bikainek xehetasun txikienean arreta jartzera eramaten dute irakurlea. Pertsonaien ezaugarri xehe guztiek ikusmenaz pertsonaiak ukitzera eramaten dute ikuslea.

Ondo aukeratutako hitz gutxiko liburua da, baina ilustrazioen eta hitzen arteko dantza orekatuak irakurketa lasairako gonbidapena luzatzen du.

Haur zein helduagoentzako oso objektu ederra osatzen du istorio erraza duen album honek.

Rebecca Dautremarren ilustrazioek erakusten duten sentiberatasuna ikusten da pertsonaien begirada eta keinu errealista bakoitzean.

Escoffier, Michaël

Izotz azpian

Ilustratzailea: Ella Charbon

Donostia: Ttartalo, 2024

ISBN: 978-84-19696-44-1

Michaël Escoffierren eta Ella Charbonen ***Izotz gainean*** liburua altxor txiki bat da haurrentzako album ilustratuen artean. Bai testuak bai irudiek istorio samur eta umoretsu bat kontatzen digute, eta irakurleari ere buelta bat emanarazten diote, begirada berriz kokatzeko moduko kontakizuna osatuz.

Liburuaren bi protagonistak, arrantzale txiki bat izotz gainean eta arrain txiki bat izotzaren azpian, bien arteko tirabiraren bidez ezagutzen ditugu. Biek dute helburu bat, biek dute lagun talde bat inguruan, eta biek erakusten digute nola egoera bat ikuspegi desberdinetatik uler daitekeen.

Amaiera zoragarriak harritu egingo du irakurlea, eta istorioa berriz irakurtzera gonbidatuko du, xehetasun berriak deskubritzeko gogoarekin. Horregatik, liburu hau ez da irakurketa bakarrekoa: lehen irakurketa dibertigarria bada, bigarrena are aberasgarriagoa da.

Ella Charbonen ilustrazioek kolore epelak, espresibitate handia eta keinu sinpleak baliatzen dituzte istorioari bizitza emateko. Pertsonaien aurpegiak, mugimenduak eta espazioaren erabilera finak irakurlearen ulermena eta parte-hartzea bultzatzen dute. Halaber, liburuaren formatua bera, orriak nola antolatzen diren tirabira fisiko horren sententzia sortzeko, kontu handiz diseinatuta dago.

4 urtetik aurrera

Brenman, Ilan

Sokatira

Ilustratzailea: Guilherme Karsten

Itzultzailea: Ipar Alkain

Berriozar: denonartean, 2024

ISBN: 978-84-19529-48-0

Album honetako istorio sinple eta linealaren barrenean gerraren zentzugabekeriarekin egiten dugu topo. Hala ere, ez dira ageri, ez irudi esplizituak, ez testu mingarririk. Saltxitxa goxo bat eta bi txakur, bata handia eta bestea txikia, dira protagonista nagusiak.

Eta hala, biak ala biak arrapaladan joango dira saltxitxaren bila eta bakoitzak alde batetik tiraka hasiko da. Poliki-poliki, pertsonai karismadun eta maiteak biltzen joango dira sokaren alde bakoitzean: otsoa, batetik, eta hiru txerrikumeak, bestetik; urpekaria, batetik, eta

astronauta, bestetik; kristauak, batetik, eta juduak, bestetik, ... eta “soka” tenkatuko da, eta orduantxe, hain justu, katu bat pasako da eta horrekin soka-tira. Une honetan, kontakizunak beste buelta bat emango du.

Brenmanen testu sinple eta motzak eta Karsteneen irudi biziek kaosa nagusi den eszenatoki dibertigarri batetara eramango du irakurlea, baina baita gerraren zentzugabekeriaren pentsatzera ere bai.

Umeeak eta helduek gozatuko dute euskaraz itzuli duten tandem honen lehenengo lanarekin. Ondo pasatzeaz gainera, sortutako hausnarketa eta interpretazioak interesekoak izango dira.

Browne, Anthony

Eder txikia

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pontevedra: Pamiela: Kalandraka, 2024

ISBN: 978-84-9172-384-4

Haur-literaturako maisu da Anthony Browne. Idazlea ez ezik, ilustratzailea ere bada, eta bata zein bestea bikain betetzen ditu. Horregatik, ez dira oharkabeen pasatu gure eskuetatik *Tunela, Urdaburutarra, Osteratxo bat parkean* edo beste bere lan batzuk.

Album honetan protagonista nagusia primate bat da; ia gizakia dirudien primatea. Egun batean, zeinu-hizkuntza erabiliz, gorila handi bakartiak zaintzaileei esango die lagun bat nahi duela, eta, beste gorilarik ez dagoenez, katu txiki bat oparituko diote.

Bikote banaezina bihurtuko dira. Baina, tamalez, haien harremana kolokan jarriko da; izan ere, King Kong pelikula ikusten ari direla, gorilak telebista apurtuko du, eta zaintzaileek arrapaladan bi lagunak banatzea erabakiko dute. Hala, irakurleak, nahiz eta gorilak egindakoa ulertu, kontrajarri egin beharko ditu bere erantzuna eta zaintzaileek hartutako erabakia. Amaierak gure barrua mugituko du.

Brownek liburu honetan laguntasunaz, konplizitateaz eta komunikazioaz hitz egiten digu. Testu zuzenak eta bere marrazkien xehetasunak eta gizatasunak irakurlea hunkitzeaz gainera, haren irribarrea ere aterako du. Ezin ahaztuko ditugu liburuko zenbait momentu. Primateak marrazten iaioa da, eta abilezia hori erabiliko du ez bakarrik gure gorila marrazteko, baita Kong marrazteko ere.

Umoreak eta mezu sakonek, batetik, eta testu eta marrazki bikainek, bestetik, borobiltzen dute lan hau. Eskertzekoa da Pamiela eta Kalandraka argitaletxeek elkarlanean daramatzaten urteak bere lanak euskarara ekartzen.

Lionni, Leo

Arrainak arrain

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pontevedra: Pamiela: Kalandraka, 2024

ISBN: 978-84-9172-371-4

1970. urtean *Fish is fish* izenburupean argitaratutako klasikoa dugu Leo Lionniren album ilustratu hau, eta orain, edizio zaindu batean, lehenengo aldiz euskaratua.

Basoko urmael batean bi adiskide bizi dira: arraintxo bat eta igel bat. Banaezinak dira, baina zapaburua eraldatu ahala eztabaidak hasten dira, arrainak ez baitu sinesten zapaburua igel bihurtu izana. Benetako igel bat eginda, urmaeetik ateratzen da mundua ezagutzeko. Itzuleran, igelak lagunari partekatzen dizkio ezagutu dituen gauza harrigarriak: txoriak, behiak, jendea. Arrainak, liluratuta eta mundu hori ezagutzeko irrikan, uretatik salto egitea erabakitzen du. Baina ingurune berria ez da egokia berarentzat, eta lagunari esker urmaelera itzuliko da. Azkenean, ohartzen da bere lekua uretan dagoela *arrain bat delako*.

Marrazki eder eta panoramikoak zabaltzen dira bi orrialdeetan. Koloretako arkatzekin eginda daude, eta horrek testura handia ematen die. Egileak naturako koloreak erabiltzen ditu: berdeak, marroiak, urdinak, okreak. Arrainak irudikatzen dituzten izaki harrigarriek, berriz, kolore biziak eta deigarriak dituzte. Ilustrazioak testurik gabe ere azaltzen dira, guztiz esanguratsuak eta umorezko kutsuarekin. Eta hemen azaleratzen da Leo Lionniren apartekotasuna; inoiz uretatik irten ez den arrain batek nola imajinatuko ditu ba txoriak, behiak, jendea?

Alegoria honetan Lionniren liburuetan landutako gaiak agertzen dira, hala nola laguntasunaren garrantzia edo desberdintasunaren onarpena. Horrez gain, oraingo honetan, nork bere ahalmenak eta mugak onartzearen eta baloratzearen inguruko gogoetara gonbidatzen gaitu, eta nola norberaren ezagutzak eta esperientziak baldintzatzen dituzten ikuspegia eta imajinazioa.

Leo Lionnik (1910-1999), idazle eta ilustratzaile handiak, ekarpen ukaezina egin dio haur-literaturari: *Munduko etxerik handiena*, *Urdin txiki eta hori txiki*, *Frederick*, *Matiasen ametsa*, *Arrarik arra*, *Igeritz*, *Kornelio...* artelan zoragarriak.

Martiarena, Dani

Jonek Jone izan nahi du

Ilustratzailea: Ana Ibañez

Berriozar: denonartean, 2024

ISBN: 978-84-19529-46-6

2017an argitaratu zen lehen aldiz Dani Martirenaren *Jonek Jone izan nahi du* albuma. Orduko liburu hura *Liburu iletsuak* zigiluaren eskutik ezagutu genuen, eta, tamaina txikikoa izan arren, formatu berezia zeukan. Guztiz irekitzen zenean, postal bilduma zabalgarri eta luze baten itxura hartzen zuen, akordeoi baten erara. Esku artean duguna, berriz, Denonartean argitaletxeak berrargitaratu du, ohiko liburuen formatuarekin. Hala ere, edukia berbera da, eta bietan ageri dira, Martirenaren testuaz gain, Ana Ibañezen ilustrazioak.

Liburu ausarta da honako hau; izan ere, haurren liburuetan gutxitan ikusten dugun gai potoloa ukitzen du. Genero-identitatea du ardatz, eta Jone-Jon izenek duten genero-anbiguotasunarekin jolasten du liburu osoan zehar. Izan ere, transexualitatea da liburuaren gai nagusia, eta, gure ustez, egileak asmatu du istorioa kontatzeko eran.

Haurrek egiten duten moduan, handitan zer izango den amesten du Jonek: pilotu zein marinel, lorezain, trapezista, edo zergatik ez astronauta, txanogile, yoga-irakaste, margolari, musikari, mago zein sukaldari. Baina, batez ere, handitan handi izan nahi du Jonek, eta bere benetako eta ezkutuko nahia betetzea nahi du: norbera izateko nahia, hain zuzen ere.

Hizkuntza eta doinu poetikoa erabiltzen ditu egileak, ozen irakurtzeko apropos eta entzuteko atsegin. Ana Ibañezen collage erako ilustrazioak kartoizko kutxak diruditen orrialdeetan antolatzen dira. Didaktismoan erori gabe, barne-gatazkak hobeto ulertzen laguntzen digun literatura ederra. Gure nortasunaz hausnartzeko liburua.

Mutuberria, Maite

Arrats zapo bat

Arre: Pontevedra: Kalandraka: Pamiela, 2024

ISBN: 978-84-9172-372-1

Istorio arrunt honetan, zapo bat lasai-lasai dago eltxo bat berarekin jolasean hasten den arte, zapoa aspertuta dagoelakoan. Baina zapoak espero ez duen erantzuna emango dio eltxoari. Jarraian, barraskiloa hurreratuko zaio zapoari, eta honek ere espero ez duen erantzuna jasoko du. Eta horrela, zapoak bisita asko edukiko ditu arrats arrunt horretan, baita matxinsaltoarena ere. Azken bisita horrek tarte luzerako kenduko dio asperdura gure zapoari.

Album ilustratu hau oso dibertigarria eta umore handikoa da. Maite Mutuberriak, estilo narratibo bereziarekin aurkezten ditu ipuineko protagonistak, joko fonetikoak eta onomatopeiak erabiliz, animalia bakoitzaren pertsonalitatea definituz.

Bestalde, irudiak idazleak berak eginak dira, sinpleak baina oso adierazkorrak eta esanguratsuak. Kolore lauak eta oso biziak erabiltzen ditu. Ilustratzaileak zapoaren tamainarekin jokatu du ipuina aurrera doan bitartean; zapo handituz eta handituz doa bera harrapatua izaten den arte.

Ipuina letra larriz idatzia dagoenez, oso ipuin aproposa izango da lehenengo irakurleentzat; aldi berean, une oso atsegin batez gozatzeko aukera izango dute.

6 urtetik aurrera

Pujol, Romain ; Caut, Vincent

Arrosa koloreko bizitza

Itzultzailea: Bego Montorio

Bilbo: Astiberri, 2023 (Biga; 6)

ISBN: 978-84-19670-40-3

Pujol, Romain ; Caut, Vincent

Txantxak sortzeko makina

Itzultzailea: Bego Montorio

Bilbo: Astiberri, 2024 (Biga; 7)

ISBN: 978-84-19670-51-9

Has gaitezen azaltzen nor den BIGA = **B**enetan **I**dentifikatu **G**abeko **A**nimalia. Adeitsua da, jostalaria, hutsegiteen erregea, eta itxuraldatzeko ahalmen aparta du. Urdina, berdea, horia edo ikusezina, erraldoia nahiz ñimiñoa, hartz txiki baten itxura duena, zein fruitu edo barazki batena... Biga maitagarria besteak ez bezalako mutiko bat da: nahieran itxuraldatzeko botereak ditu. Ez dakigu zehatz zer animalia mota den, baina gauza bat argi dugu: umeen heroi kutuna izateko baldintza guztiak betetzen ditu! Izan ere, Animalia eskolako izarra da Biga, eta biziki maite dute denek!

Bigaren sortzaile Romain Pujolek eta Vincent Cautek asmatzen dituzten pasadizoen eta abenturen kuxkak hondorik gabekoa dirudi. Haien istorioak argitasunez eta originaltasunez beteta daude. Dibertitu egiten gaituzte, eta gogoeta eginarazi: familia, jolasak, alergiak, jolastokiko bihurrikeriak, desberdintasuna, bullyinga edo adiskidetasuna... Ez da soilik Bigak duen boterea, luzatzeko edo hegan egiteko duen ahalmena; nortasuna ere badu, eskuzabala eta arretatsua da, jostaria eta bihurria. Biga erratu egiten da, ikasten du, eta mugak daudela ohartzen da, bere adineko edozein ume bezala. Haur guztiek bizi dituzten egoerak izango ditugu irakurgai: lagunen artean sekretuak egotea, maite dugun norbaitek alde egitea, mendekua hartzeko nahia...

Gidoiak bi orrialdeko abenturatan egituratuta daude, eta modu xaloan lantzen ditu gai garrantzitsuak. Umorea, jakina, funtsezkoa da, eta nonahi ageri da. Romain Pujol gidoilariak oreka perfektua lortzen du landutako gaien seriotasunaren eta komikia ardazten duen umorearen artean. Bestalde, Vincent Caut marrazkilariaren trazua ere nabarmentzekoa da: dinamikoa, adierazkorra, koloretsua.

Horrez gain, albumaren amaieran irakurleak orri bikoitz bat aurkituko du Bigarekin eta haren adiskideekin jolasteko.

Arrakasta handia lortu du Biga sailak, bai Frantzian bai Pirinioen hegoaldean, eta horren adibide dira Espainian saldutako 30.000 aleak. Izan ere, Pujolen eta Cauten lanak mugak gainditu ditu, eta gero eta herrialde gehiagotan argitaratzen da; adibidez, Korean. Bilduma honek euskarazko irakurleen etxeak eta bihotzak ere hartu ditu. 2020 urtean Astiberrik BIGA

sailaren lehen liburukia argitaratu zuen euskaraz, eta 2025 urtean 8. zenbakia argitaratu da. Argi dago, beraz, bilduma unibertsala dela, jolas eta keinuz betea, eta aukera ematen du familian dibertitzeko.

Nola ez maitatu, bada, Biga, benetan identifikatu gabeko animalia! Txundituta uzten ditu denak, hunkituta eta liluratuta haren fantasiaz eta berezitasunaz. Heroi txiki berri bat heldu da gure artean gelditzeko, jatorra eta atsegina!

Rodari, Gianni

Bat eta zazpi

Ilustratzailea: Beatrice Alemagna

Itzultzailea: Fernando Rey

Arre: Pontevedra: Pamiela: Kalandraka, 2024

ISBN: 978-84-9172-386-8

Telefonozko ipuinak da Rodariren obra garrantzitsuenetako bat, eta «Bat eta zazpi» da bertan topatuko dugun ipuinetako bat. Kasu honetan, album ilustratu moduan topatuko dugu.

Bianchi jaunak, Italia guztian barna saltzen ibiltzen zen merkataritza-agente batek, sakelako telefonorik ez zegoen garaian, egunero deitzen zion bere alabari ipuin bat kontatzeko. Baina deiak oso garestiak zirenez, ipuinek oso laburrak behar zuten izan. Paolo, Jean, Kurt, Juri, Jimmy, Txu eta Pablo, zazpi ume dira, bakoitza hiri batekoa. Zazpi ume, hizkuntza berean egiten dutenak irri. Zazpi ume, handitzen direnean elkarri kontra eginen ez diotenak, gizon bera direlako. Hautzaroari, tolerantziari eta dibertsitateari buruzko kontakizun bikain baten aurrean gaude, gerraren aurkako alegatua ere badena.

Gianni Rodari idazlearen lanen ezaugarri nagusiak umorea, irudimena eta fantasia neurrigabea dira, baina, aldi berean, munduaren ikuspegi kritikoa islatzen da, ironia modu bikainean erabiliz.

Bestalde, Beatrice Alemagnaren irudiak tamaina handikoak dira, orrialde biak betetzen dituztenak, oso koloretsuak eta testu laburrari oso ondo lotuak, informazio gehigarria emanez irakurleari.

Irakurketa-maila ezberdinak dituen album ederra, aurreko mendeko 90eko hamarkadan idatzita dagoena, baina gaurkotasunik galdu ez duena.

Taltec, Olivier

Nahi nuke

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla: Txalaparta, 2024

ISBN: 978-84-10246-11-9

Oso gustuko ditugu Olivier Taltecen liburuak. Zorionez, Txalaparta argitaletxearen eskutik, frantziar egilearen lanak euskaraz irakurtzeko aukera izan dugu azken urteotan.

Nahi nuke izenburupeko albumean, bueltan da Taltecen katagorri ezaguna, eta orain ere konpondu beharreko arazo existentzialistak ditu.

Aski da, nazkatu da, ez du gehiago katagorria izan nahi. Iritzia eskatu izan baliote, beste zerbait izan nahiko zukeen. Baina, zer, ordea? Kastore langilea, orein dotorea, triku lasaia... ez daki! Animalia asko daude, eta denak iruditzen zaizkio katagorria izatea baino aukera hobek. Baina bere benetako nortasuna aurkitu duela uste duenean, zalantzak eta arazoak besterik ez ditu izango.

Umorea da egile honen lanaren zutabe nagusia, eta horren bitartez irakurlearen barrea eta hausnarketa bilatzen ditu aldi berean. Izan ere, pertsonaia maitagarrien bidez, ezaguna egiten zaigun unibertso berezia sortu du. Aurpegi komiko eta gorputz luzeskak margotzen ditu, eta trebetasun handiarekin adierazten ditu emozio ezberdinak: harridura, nahasmena, alaitasuna edo atsekabea, kasu.

Ilustrazioek pisu handia daukate liburu honetan; tentuz begiratzuz gero, ipuin honen bukaeran beste baten hasiera egon daitekeela ikusiko dugu agian. Oso garrantzitsua da gure buruaz barre egitea, eta, nola ez, besteekin partekatzea.

Istoriok honetarako ez ezik, pentsarazteko ere balio du. Horregatik guztiagatik, Olivier Taltec funtsezko egilea da egungo haur-literaturan.

Turin, Adela ; Bosnia, Nella

Bonobo betaurrekodunen egiazko historia

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Arre: Pamiela: Pontevedra: Kalandraka, 2024

ISBN: 978-84-9172-369-1

Historia hau orain dela urte asko eta asko gertatu zen, oihanean. Bonobo emeak lan eta lan aritzen ziren janaria biltzen, helduentzat eta umeentzat. Bonobo arrak, berriz, hitz eta pitz aritzen ziren, jan eta jan, esku-zartaka eta txaloka, bonobo emeak nekatu ziren arte. Eta, egun batean, beste baso batera aldatzea erabaki zuten.

Ez dakigu istorioaren amaiera. Idazleak zabalik utzi du. Baina, ezaguna egiten zaizue? Iraganeko istorioa da, ala gaur egungoa?

Ipuin honek gogoeta egitera gonbidatzen gaitu, gizarte patriarkal baten funtzionamenduaz harago, nolakoa izango litzatekeen gizarte feminista, berdinzalea, gizabanako guztien ongizatean laguntzen duten bonobo arrez eta bonobo emez osatua, jaberik eta zerbitzaririk gabek, non bakoitzaren gaitasunak guztion zerbitzura jartzen diren.

Adela Turin Italian jaio zen, 1939an. Artearen historialaria eta idazlea, 1960ko hamarkadan haur-literaturako joera sexistak aztertzeari ekin zion. Familia patriarkalaren eremuan genero-diskriminazioari aurre egiteko asmoz, *Dalla parte delle bambine* bilduma sortzea erabaki zuen. Bilduma horrek hogeitau titulu baino gehiago argitaratu zituen 1975 eta 1980 bitartean. Gehienak oso ezagunak eta hizkuntza askotara itzuliak, baita euskarara ere. Alde horretatik, eskerrak eman behar dizkiogu Pamiela argitaletxeari, lan horiek gure hizkuntzan izateko aukera emateagatik.

Idazle honek gai sozialak, berdintasuna eta errespetua lantzen ditu, eta bere lanek hausnarketa bultzatzen dute, haurren ikuspegi kritikoa eta enpatikoa landuz. Hori guztia kalitate literario handiko albumetan.

Nella Bosnia ilustratzaile ospetsua da, haur-literaturan egindako lanagatik ezaguna. Bere estiloa oso koloretsua, adierazkorra eta bizitzaz betea da. Berehala bereganatzen du haurren arreta, eta bere ilustrazioek emozioak transmititzen dituzte, irakurle txikiarentzako irakurketa-esperientzia aberastuz.

40 urte baino gehiago igaro dira liburua argitaratu zenetik, eta gaia oraindik ere indarrean dago. Horrelako lanak oso beharrezkoak dira oraindik ere gizartean rol femeninoa nabarmentzeko, estereotipo sexistak eta diskriminazioa desagerrarazteko, eta pentsamoldeak aldatzeko, mundu hobea eraikitzeko.

Umorez eta edukiz betetako istorioa. Adin guztietako bonoboentzat! Gozatu!

8 urtetik aurrera

Astiz, Iñigo

Zizare ia-ia hegalaria eta beste ia-ia fabula batzuk

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Aduna: Elkar, 2024 (Xaguzar)

ISBN: 978-84-1360-352-0

Fabulak gutxitan izan dira hain dibertigarriak. Iñigo Astizen liburu atsegin honetan animalia bitxiak eta egoera xebreak aurkituko ditu irakurleak. Lehen migrazioa izango duen ZAK izeneko zikoina gaztearen eta ZEK izeneko zikoina zaharraren gidaritzapean abentura liluragarrietan murgiltzeko aukera izango dugu: igel bihurtzen diren zapaburuak eta egoera berriari nola aurre egin ez dakitenak, ilargira bidaiatu nahi duen zorri ameslariaren abenturak zein Zahid izeneko zizare ia-ia hegalaria, hegazti ezberdinen mokoetatik ihes egitea lortuko duena bere trikimailu adimentsuekin.

Aipatzekoa da egileak hizkuntzarekin jolasteko duen abilezia aparta. Letra larriz adierazitako onomatopeiaren erabilerak nabarmenak dira narrazioan zehar, hala zikoinen izenak, nola zapaburuaren eraldaketan gertatzen direnak: «PLOP!, ohartzerako, PLOP!, PLOP!, PLOP!, haiei ere, PLOP!, bigarren hanka pare bana atera zitzaizkien buruaren aurrealdean» (19. or.), besteak beste.

Zorriari laguntzen dion gameluaren kasuan, aipatzekoa da hitzak errepikatzen duen joera: «-Ei! Etorri edo erdu nirekin —esan zien gameluak Zoe zorriari eta sugeari—. Leku edo gune bat erakutsiko dizuet». (39. or.)

Literaturak egileari hizkuntzarekin jolasteko eskaintzen dion eremu horretan, Iñigo Astiz trebeki mugitzen da, balio erantsia eta gozotasuna emanez kontakizunari. Eta ezin alde batera utzi umorearen erabilera. Adibidez, eskolarik gabeko desertuan pilatutako piztiak zorriaren espaziontzia abiarazteko atzerantz kontatzeko agertzen duten abildade eskasa, ezustean sugandila zaharraren nolabaiteko laguntza jasotzen duten arte.

Ildo horretatik, aipagarria da Mikel Valverderen ilustrazioek gaineratzen dioten grazia berezi hori, umorez janzten dituztelarik animalia ezberdinen xelegekeriak. Luzatua duzue gonbitea ia-ia fabula dibertigarri hauetara hurbiltzeko; ia-ia ez zaizue damutuko.

Hazen, Barbara

Azti ikaslea

Ilustratzailea: Tomi Ungerer

Itzultzailea: Miren Arratibel

Barcelona: Dimoni Pelut, 2024

ISBN: 978-84-126034-7-7

Azti zahar eta jakintsu bat gaztelu beldurgarri batean bizi da. Sotoan egiten ditu bere konjuru eta sorginkeria guztiak. Sotoan du liburutegi bat ere, eta liburuen artean, bat oso garrantzitsua eta giltzapean edukitzen duena: bere konjuru eta magien liburu erraldoia.

Sotoan du bainuontzi antzeko bat ere, urez beteta dagoena. Urez bete behar izaten da egunero, eta Rhin ibaitik ekarritako urarekin egiten du hori azti ikasle batek ur-kuboen bidez.

Humboldt du izena azti ikasle horrek, eta hari egotzi dio aztiak lan astun hori egitea. Humboldt nagai xamarra da; hala ere, berak ere azti izan nahi du, eta, bere lanaren truke, magiako irakaspenak jasotzen ditu maisuarengandik.

Baina ikasleak magiako liburu erraldoia eskuratzen duen bezain pronto, berehala jabetuko da magiaren alde onaz eta txarraz, Dimoni Pelut argitaletxeak plazaratu duen album eder honetan.

Aitzinako maitagarrien eta folklorea jasotako ipuin klasiko baten moldea du istoriotxo honek. Estatu Batuetako haur-literaturan ezaguna den Barbara Hazenek idatzi zuen 1969an, Johann Wolfgang Goetheren (1797) olerki-balada ospetsuan oinarrituta.

Tomi Ungerer da ipuin honen irudien egilea. Urte askotan egin du lan emankorra eta aberatsa, eta ez bakarrik haur-literaturan.

Bere ilustrazioak lagungarriak eta esanguratsuak dira istorio honetan. Kontraste kromatikoa nagusi delarik, eszena bakoitzean adierazkortasuna duten eta ezaguna egiten zaigun estilo berezia erakusten dute.

Orrialde bakoitzean umore beltzeko keinu txikiak aurkitzen ditugu, hala nola hildakoen hezurdurak paretan edo moztutako buruak eta hankak gaztelu beldurgarrian zehar. Magiazkoa, sorginkeriazkoa eta beldurrezkoa izan nahi duen kontakizun batentzat ezin

aproposagoak. Hori bai, izua baino gehiago irribarrea da egileek sorrarazten digutena formatu handiko album eder honekin.

Narrazioak oso erritmo bizia du, eta zinez diogu album zoragarria dela, entretenigarria izateaz gain. Eta irudiak zoragarriak dira. Hori baino ez du egiten kalitate handiko album ilustratu eta guztiz gomendagarriak.

Igerabide, Juan Kruz

Euskal herrietako ipuin bilduma

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Berriozar: denonartean, 2024

ISBN: 978-84-19529-70-1

Izenburuak esaten digun lez, ipuinen bilduma oparoa jasotzen du lan honek.

Izan ere, orain arte egilearen eta ilustratzailearen artean argitaratutako *Euskal herrietako ipuin gaiztoak*, *Euskal Herrietako ipuin harrigarriak*, *Euskal herrietako ipuinak* eta *Euskal herrietako laminen ipuinak* lanetan argitaratu eta bildu dituzten ipuin guztiak jasota agertzen dira hemen.

Aipatutako izenburuak Denonartean argitaletxe nafarraren baitan argitaratuak izan ziren 2017. urteaz geroztik oso edizio ederretan. Lau liburu horietan plazaratutako ipuin haiei guztiei hiru ipuin berri gehitu zaizkie, egile eta ilustratzaile berdinek *Herensuge* liburuan 2022an argitaratutakoak.

24 kontakizun guztira, ahozko literaturako piezak guztiak ere eta gure kulturaren ezinbesteko bilduma osatzen dutenak, ahoz gora irakur daitezkeenak euskara garbi, ulergarri eta aberatsean.

Batzuk beldurgarriak, izaki gaiztoz josiak, beste batzuk magikoak, beste batzuk balio moralez jantziak, eta Igerabidek aitzinsolasean dioen lez, «*ipuin hauek airez, lurtean zehar edo itsasoz iritsiak dira. Euskara zaharrak tradizio mitologiko matriarkala jaso zuen, eta lur hauetatik igarotako beste herri batzuen tradizioekin nahasi: zeltiarrenak, erromatarrenak, arabiarrenak... etab.*»

2017. urteaz geroztik, mintegi honetako irakurketa-gidetan agertu dira bilduma hauek jasotzen dituzten ia lan guztiak, gomendatuta, oso gomendagarrien atalean.

Honetan, aldiz, ez zaio beste lau lanetan zabalduko bideari jarraitu, eta faltan bota ditugu Elena Odriozolaren ilustrazio-lanak. Formatu berdineko edizioa ederra den arren, liburuaren azalean eta orrialdeen zenbakietan baino ez ditugu ilustratzailearen irudiak ikusten. Aurreko edizioetan agertzen ziren irudi zabalgarriak, koloretsuak ez ditugu hemen aurkitu. Pena!

Haietan aurkitzen genuen tipografia handia ere ez dugu bilduma honetan ikusten; litekeena da edizio maneiagarriagoa lortzeko baztertu izana ilustrazio zabalgarriak edo tipografiaren kontu horiek.

Betiko ipuinak, beraz, kontatzeko zein irakurtzen hasten direnentzat ezin egokiagoak.

Mark, Josephine

Zipotz

Jatorrizko liburuaren egileak: Annette Pehnt & Jutta Bauer

Ilustratzailea: Jutta Bauer

Itzultzailea: Naroa Zubillaga

Bilbo: Astiberri, 2024

ISBN: 978-84-19670-96-0

Auzokide berri bat iritsi da herrira, eta Pinpirinek eta gainerakoek bisitan joatea erabaki dute, ongi-etorria eman nahi diote! Nolako izango da? Zipotz du izena, eta ezagutzeko irrikan daude.

Lau istoriotan banatutako komiki hau pertsonaia bitxiz josia dago, baina Pinpirin eta Zipotz dira protagonista nagusiak. Pinpirin alaia da, atsegina, optimista, dibertigarria; Zipotz, berriz, umore txarrez dago beti, pesimista hutsa da, eta bakarrik egotea da gehien gustatzen zaiona. Oso desberdinak diren arren, poliki-poliki, trabak tarteko, elkarren arteko harremana sendotzen joango da, eta Zipotzek taldean egokitzeke pausoak emango ditu.

Umorez eta sentiberatasun handiz kontatutako komiki goxoa da; irakurri ahala, protagonistak maitekorak eta ahaztezinak egingo zaizkigu.

Josephine Mark *Txangoan Txiripaz* komiki arrakastatsuen idazlea da. *Zipotz* komikia, ordea, alemanez idatzitako *Der Bärbeiss* gazteentzako liburu ezagunetan oinarritua dago — Annette Pehnt idazleak idatziak eta Jutta Bauer egile ospetsuak ilustratuak—.

Laburbilduz, desberdina izatearen inguruko kontakizuna da honako hau, non bizikidetzaren eguneroko harremanen garrantziaz hitz egiten baita, betiere harmoniaren aldeko apustua eginez.

Mitxelena Etxebeste, Karmele

Dardarak

Ilustratzailea: Irene Irureta

Tafalla: Txalaparta, 2024

ISBN: 978-84-19319-99-9

Dardarak kontakizun hunkigarria da. 500 urtez isildutako gertaera bati tira eginez, Joana Aurrekoetxeak eta Karmele Mitxelenak idatzia eta Irune Iruretak ilustratua. Bertan, Maritxuren eta Katalinaren istorio intimo eta poetikoaren bidez, adinarekin datorren bizitzaren hauskortasuna eta, aldi berean, indarra azaleratzen da. Teilatupe berean bizi diren bi emakume adinduen arteko harremana da ardatza, maitasunez eta elkar zaintzaz jositako egunerokoa, baina baita beldurrek eta ezegonkortasunek markatutako bizi-esparrua ere.

Liburuaren testuak eta irudiek metafora bihurtzen dute espazio fisikoa; zeruaren dardarak ez dira soilik natura-gertakari hutsak, baizik eta bi protagonisten barne-mundua astintzen duten emozioen eta aldaketen adierazle. Narratiba sentikor eta iradokitzaile batez, egileek

agerian uzten dute zein garrantzitsua den «etxe» baten babesa, ez bakarrik teilatua eta lau paretak, baizik eta harreman batean topatzen den segurtasuna eta konplizitatea.

Album ilustratu hau bereziki hunkigarria izan daiteke zaintza, zahartzaroa edo etxebizitza duinaren inguruan hausnartu nahi duen edonorentzat; baina baita bizitzaren amaieran harremanek eta maitasunak duten indarra ulertu nahi dutenentzat ere.

Testuaren erritmo lasaiak ez dio indarra kentzen kontakizunari, eta istorio txiki batek oihartzun handiak izan ditzakeela erakusten du.

Ez da liburu zaratatsua, baina bai geruzaz betea, isilpeko dardarak bezala. Irakurri geldo eta begiak bihotzera eramanez.

Watanabe, Issa

Migranteak

Oiartzun: 1545, 2024

ISBN: 978-84-12724-57-8

Album honek ez dauka testurik, baina ozen hitz egiten digu. «Emigranteak» izenburua da, hain zuzen, albumean agertzen den hitz bakarra; jarraian, ilustrazioen bidez osatu beharko dugu istorioa. Pertsonifikatutako animalia talde baten martxa marrazten du liburuak; nora doaz? zergatik? ihesean doaz? Irudiak aztertuz galdera horiek erantzuten saiatuko da irakurlea. Ez dago hitzen beharrik irakurlea hunkitzeko, talde baten ezbeharrak ulertzeko eta beren lekuan jartzeko. Heriotzatik ihes egiteko, bizia jokoan jartzen du talde honek. Gaua, basamortu amaigabea, itsaso iluna... Zenbat mehatxu zeharkatu behar dira, etorkizun hobe bat izateko?

Fondo beltzaren gainean irudikatzen da istorio osoa. Beltza da eszenatokia, beltza da paisaia, eta beltza da bidea. Beltza kolore indartsua da, tristura, beldurra eta zihurgabetasuna gordinki adierazteko. Pertsonaien artean, zaharrak, gazteak eta haurrak desberdintzen ditugu, eta haiekin batera, beti zelatan, heriotza. Hala ere, errealitate latza nagusi izan arren, esperantzarako lekua ere aurkituko dugu liburuan. Ibilbide honen ondoren, gauzak ziren bezalakoak ez badira ere, onak izan daitezkeen itxaropena zabalik uzten du egileak.

2019an argitaratu zen gaztelarazko zenbakia, eta orain 1545 argitaletxe gazteak ekarri du gurera. Issa Watanabe ilustratzaile perutarren lan dotore eta azpimarragarria. Bizi garen garai hauetan behar-beharrezkoa dugun kontakizun krudela bezain ederra.

10 urtetik aurrera

Mitxelena Etxebeste, Karmele

Aitona Floren

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Elkar, 2024 (Xaguxar; 251)

ISBN: 978-84-1360-335-3

Liburu berezia dugu honako hau, dolua jorratzen duten liburuak bereziak izan ohi direlako. Ez da erraza doluak eragiten dizkigun sentimenduen inguruan aritzea, eta, kasu honetan, Karmele Mitxelenak, bere idazkera goxo eta adierazkorrarekin, ezin hobeto islatu ditu Danel mutiko protagonistaren bizipen eta kontraesanak.

Maiz ez dugu jakiten gure sentimenduak nola adierazi, zein den jarrera egokiena urkoa ez samintzeko, eta hori modu ederrean jorratzen du egileak, ez baitago modu bakarra gure intimitatea azaltzeko: «Estuegi besarkatu nau, eta atsekabe handiz egin du negar. Uste dut nik ere negar egitea espero zuela, baina niri ez zait negarrik atera. Negar egin beharko nuke?» (23. or.).

Danelen eta Aitona Floren desagertuaren artean gauzatzen diren elkarrizketak bizipen hunkigarriz beteta daude, eta, horretarako, lehen pertsonan taxutuko da narrazioa. Horrek hurbiltasuna eta indarra gaineratzen dizkio, sentsibiltate berezia erantsiz. Eta hau da egilearen bertute nabarmenatariko bat: gehiegizko samurkeria hutsaletik urrun, modu errealean eta sinesgarrian adieraztea barne-sentimendu horiek.

Ezin albo batera utzi Jokin Mitxelenaren estilo bereizgarria duten ilustrazioak, istorioa ederki janzten dutenak. Bilduma honetan bertan argitaratutako bere aurreko lan aipagarrian egileak udaldiko oporrak ekartzen bazizkigun gogora, oraingoan lan intimoagoa eta barnerakoiagoa ekarri digu, guztion gozamenerako zapore goxoa uzten digun lan oparoa.

12 urtetik aurrera

Berrocal, Beatriz

Ibai gorria

Ilustratzailea: Verónica Aranda

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2024 (Paper txoriak. Sail berdea; 30)

ISBN: 978-84-1370-592-7

“Jamiak belaunean egindako zauritik odola zeriola ikusi nuen efunean jakin nuen zurien eta betzen arteko ezberdintasunei buruz esan zizkidazen gauza guztiak gezurra zirela”. Horrela hasten da Hegoafrikan girotutako kontakizun hau.

1993.urtea. Shakak – zortzi urteko mutiko zulua – eta haren lagunek Hegoafrikako igeriketatalderik onen osatu nahi dute Japoniako Olinpiadetan euren herrialdea ordezkatzeko eta irabazteko. Horretarako, gogor entrenatzen dute Ibai Gorrian, istorioaren erdigune izango den ibaian.

Shakak familiaren egunerokotasunaz hitz egiten digu, aitonaren figura boteretsuaz – bere herriaz harro dagoen zulua –, ingurugiroaz, tradizioaz eta modernitateaz, laguneren arteko esperientzia etahausnarketez, eta, nola ez, beltzen eta zurien arteko harremanez eta desberdintasun sozialez; gizarte bidegabe eta ulertezin horri buruz. Shaka harriduraz ohartzen da persona guztiak berdinak garela, azala bakarrik da desbedina. “Non dago orduan ezberdintasuna?” galdetzen dio bere buruari.

Beatriz Berrocalek, haur batzuen ilusio laino batetik abiatuta, Apartheid Garai latzen murgiltzen gaitu mutik koxkorraren xalotasun eta aurreiritzirik gabeko ikuspegitik.

Gai sakoneko liburua da, eta, aldi berean, irakurketa atsegina eta arinadauka, erritmo biziz eta naturaltasunez kontatuta. Testuarekin batera, Verónica Arandaren ilustrazio koloretsuetan paisaiak, barnealdeak eta emozioz betetako pertsonaiak azaltzen dira.

Río Rojo liburuak 2023ko haur-literaturako Ala Delta saria irabazi zuen.

XX.mendeko gizarte-errealitate mingarrienetako bat ezagutzeko eta zoritxarrez gure gizartetik hain urrun ez dauden jokabideei buruz hausnartzeko aukera.

14 urtetik aurrera

Atxaga, Bernardo

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian

Ilustratzailea: Malen Amenabar

Edizio-lana: Asun Garikano

Donostia: Erein, 2024 (Perzebal; 47)

ISBN: 978-84-9109-862-1

Atxaga, Bernardo

Sugeak txoriari begiraten dionean

Ilustratzailea: Malen Amenabar

Edizio-lana: Asun Garikano

Donostia: Erein, 2024 (Perzebal; 46)

ISBN: 978-84-9109-864-5

Lehen aldiz 1984an argitaratutako bi liburu hauek soineko berriz plazaratu ditu EREIN argitaletxeak 2024an. Argitalpena txalotu beharra dago arrazoi askorengatik, baina arrazoi nagusia da irakurle euskaldunek merezi dutela Bernardo Atxaga behin eta berriz irakurtzea. Bere liburu asko agortuta zeuden eta ezin ziren lortu. Asun Garikanok (edizio-lanak egin ditu) eta Malen Amenabarrek (ilustrazioak) gogorarazten digute literatura ona ez dela inoiz agortzen. Plazer hutsa da Atxagaren hasierako narrazio hauek irakurtzea. Eskerrik asko, EREIN!

Zer esan Bernardo Atxagari buruz? Denok dakigu euskal literaturaren maisu handienetako bat dela. Nazioartean ezaguna, bere lanek euskal nortasuna eta euskara aldarrikatu dituzte lau haizetara. Baina, agian, ez dakigu bi lan horiek *Obabakoak* zikloaren barruan kokatzen direla. 1980ko hamarkadaren hasieran, haur- eta gazte-literaturari ekin zion Atxagak. 1984. urtean, ***Sugeak txoriari begiraten dionean*** eta ***Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*** kaleratu zituen, eta ***Bi anai*** 1985ean. Hiru lan horiek ***Obaba*** ziklo delakoaren baitan kokatu dira, 1982an Irun Hiria saria irabazi zuen ***Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena*** ipuinarekin batera. ***Obaba*** zikloaren gailurra, 1988an plazaratu eta nazioartean ospea emango zion ***Obabakoak*** istorio-bildumarekin heldu zen. ***Obabaren*** ezaugarri nabarmenak animalien presentzia, pentsamendu magikoa eta elementu fantastikoak dira, landa-herri txiki batean kokaturik, Atxagaren beraren haurtzaroko Asteasuk eta inguruak inspiratuta. ***Obaba unibertso oso*** eta ***mundu sekretu*** moduan eratzten da idazlan hauetan, eta antigoaleko geografia eta gizarte bat islatzen du, non naturak eta zibilizazioak talka egiten baitute.

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian, Bakarrizketa moduan kontatua, Ameriketara gaztetan artzain joandako agure baten istorioa ezagutuko dugu. Bi gutun jasotzen ditu Euskal Herritik, Obabatik hain zuzen, gaztetako bi lagun heriotzaren berri emanez. Gutunak irakurrita, gaztetan haserretu ziren bi lagun horiek elkarrekin bakeak egin gabe hil zirela ondorioztatzen da, eta haserrealdia eragin zuen harri-apustu tranposo baten berri ematen du, zeinari esker protagonista Ameriketara joan ahal izan baitzen. Ameriketara eraman duen bizimodua erosoagoa da, Obabako bizimodu gogorarekin alderatuz gero. Baina bizitzako funtsezko gauzak galdu ditu bidean.

Beste behin ere, Atxagak gizarte- eta kultura-gaien inguruan hausnartzen du, hala nola identitatea, memoria, migrazioa eta askatasuna. Bizipen pertsonalak modu intimo eta poetikoan lantzen ditu. Pertsonaien barne-munduak eta emozioak azaleratzen ditu, irakurleari pertsonaien pentsamenduak eta sentimenduak ulertzeko aukera emanez. Narrazioak nostalgia eta galdutako denboraren sentimendua islatzen ditu, baina baita etorkizunaren itxaropena ere. Bere estiloa leuna eta xumea bada ere, hitzek indar handia dute, irakurlearen emozioak astintzeko eta hausnarketarako gonbita eginez.

Old Martinek esango lukeen bezala, Bernado Atxaga «for ever».

Sugeak txoriari begiratzen dionean, oporrak pasatzera hiritik Obabara heldutako nerabe baten bizipenak kontatzen ditu: animaliekiko harreman berezia duen aitonaren ibilerak eta herriko neska batekin izango duen lehen amodioaren ingurukoak.

Aitonaren (naturarekin lotura handia duen gizona) eta bilobaren artean sortzen den harremana zoragarria da, hunkigarria. Nerabea bete-betean sartzen da bizitzaren eskolan, bere poz eta tristuretan.

Atxagak bere ohiko estiloaren ezaugarri diren irudimen aberatsak, sinbolismo sakonak eta hizkera poetikoa erabiltzen ditu, interpretazio ezberdinetarako aukera ugari eskainiz. Maisutasunez eraikitako testu honetan, fantasia eta errealtatearen arteko mugak apurtu egiten dira eta literatura unibertsaletik nahiz euskal tradizioetik edaten duen istorioa aurkezten digu. Irakurketa erraza eta atsegina da, gogoeta egitera eta goatzera gonbidatzen gaitu. Atxagaren mundu magikoa deskubritzeko irakurketa aparta! Ez baduzu liburu hau irakurri, ez galdu aukera!!

Olasagasti Aiestaran, Ramón

Memoriaren giltza

Donostia: Erein, 2024 (Perzebal: 48)

ISBN: 978-84-9109-949-9

Indio eta Tania nerabeak denbora librean Ezkaba mendiko basoetan barna ibiltzen dira jolasean. Arratsalde batean gauza arraroak ikusi zituzten mendian. Zer dira eskeleto horiek? Zer da gizon-emakume horiek hezurren artetik atera duten botila hori? Handik egun batzuetara, aurkikuntza garrantzitsu bat egingo dute sima batean: giltza handi herdoildu bat topatuko dute, eta iraganeko pasarte ilunen ateak zabalduko dizkie horrek.

Gerra Zibilaren ostean, Ezkabako gotorlekua espetxea zen garaian gertatu zen ihesaldi harrigarriaren berri izango dute, eta giltza honen bitartez giltzapean egondako gertakizunak askatzen joango dira.

Autoreak liburu honekin memoria historikoaren gaia ekarri digu mahai gainera, historia krudel hori gazteengana gerturatuz. Zeharka beste bi gai ere jorratu ditu idazleak liburuan. Batetik, migrazioaren gaia, Tania protagonistaren bitartez, eta, bestetik, doluaren gaia, Indiok, beste protagonistak, aita mendi-istripu batean galdu zuelako.

Erein argitaletxeak gazte-literaturaren bilduman argitaratu du eleberria, baina egilearen iritziz irakurle ororentzako modukoa izan daiteke narrazio hau.

Gure historian sakontzeko liburu aproposa eta oso aberasgarria.

ZERRENDA BEREZIA

Bilbao, Leire

Klera

Ilustratzailea: June San Sebastian

Musika: Maite Larburu

Bideo sorkuntza: David Bernués

Dantza: Kukai Dantza

Zuzendaritza artistikoa: Jon Maya

Aduna: Elkar: Kukai Dantza, 2024

ISBN: 978-84-1360-419-0

Klera ez da ohiko liburu edo album ilustratua, bere orrialdeetan zehar artelan osatua aurkitu baitaiteke. Diziplinartekotasuna eskaintzen duen objektu eramangarria da, ilustrazio, hitz, dantza, ikus-entzunezko eta doinuaren bidez. Artelan hau osatu duten artista guztien elkarlanak proposamen sakona eskaintzen du.

Dena objektu bakarrean dago, liburu formatuan, baina beste maila batera eramaten duen liburu objektua da, bertan txertatuta dauden ilustrazioz eta hitzez gain bertan eskaintzen diren QR eta lotura digitalek osatuta.

Haur baten ahotsetik, lehenengo pertsonan adierazten da gerraren gordintasunaren bizipena, eta horren gordintasunaz aritzeko aitzakia ematen da, diziplinarteko edertasunaz lagunduta. Iraganeko oihartzunak ekar ditzake kontakizunak, eta baita albistegietan egun aurkitzen ditugun islak ere. Klerak ez die heriotzaren edo gerraren gaien gordintasunari iskin egiten, baina diziplinartekotasunak hausnartzera eta sakon hunkitzera eramaten du irakurle-ikuslea.

Klera koskor batek eta marrazteak duten botereak eramaten gaitu istorioaren osotasunean murgiltzera.

Carroll, Lewis

Snarkaren ehizan: Agonia bat zortzi eralditan

Ilustratzailea: Henry Holiday

Itzultzailea eta edizioa: Manu López Gaseni

Arre: Pamiela, 2024

ISBN: 978-84-9172-381-3

«Snarkaren ehizan» (ingelesez «The Hunting of the Snark») Lewis Carroll britainiarrak 1876an idatzitako olerki ospetsua da. Olerkia izan arren, izaera narratiboa daukan kontakizuna du bere «erraietan». Orduko edizioa Macmillan Publishersek argitaratu zuen, eta eskuartean duguna jatorrizko Henry Holidayren ilustrazioekin dator.

Hamar laguneko eskifaia bitxia dugu bertan, ezinezko bidaia bat abian jarriko duena, izaki pentsaezin eta fantastiko bat ehizatu nahian.

Istorioak zortzi zati ditu, eta bakoitzak Bulunba kapitainak —kapitain nahasi samar bat bezala deskribatzen denak— gidatutako tripulazioaren erronkak eta xeblebrekeriak aurkezten ditu. Ehiza horretan parte hartzen duten izaki berezi (bederatzi gizon eta kastore bat) guztien izenak B letraz hasten dira: Bulunba (liderra), Bota garbitzailea, Bonete, Bufete, Burtsa, Billarlaria, Bankaria, Buxera, Bixkotx eta Bisoi. Guztiez baliatzen da egilea orduko gizarte ingelesa kritikatzeko (Aliceren lanik onenarekin egingo duen bezala). Testuaren hizkera ludikoak eta sentipenik gabeko gaiek Carrolen estilo berezia erakusten dute, irudimena eta munduaren absurdoa azpimarratuz.

Olerki hau berezia da ez bairik gabe. Zirrargarria, umorea, asmamena, absurdoa lantzea, terminoak asmatzea eta pertsonaia eldarniotsu batzuk bizi diren giro irrealak sortzea islatzen dituelako. Egileak idatzitako lan ezagunetatik at dago, ez baita herrialde miresgarrian gertatzen, eta ez baitago prosan idatzita, olerki eran baizik. Hala ere, lan horietan lez, «Nonsense» edo zentzugabeko poesiaren generoko lana dugu hau ere, Lewis Carrolen *Aliziaren trilogia* ixten duena, hain zuzen.

Carrolen beste lan batzuk itzuli dituen Manu Lopez Gasenik ekarri du euskarara obra bitxi hau. Irakurri diogun lez, dokumentazio-lan handia eskatu dio, eta jatorrizko errima ere mantendu du. Klasiko honen edizio ederra kaleratu du oraingoan ere Pamielak.

Kazabon, Antton

Elbira Zipitria andereñoa

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Berriozar: denonartean, 2024

ISBN: 978-84-19529-45-9

Gaur egun ere hezkuntzan bilatzen eta sustatzen diren ideia eta balioetan aurreratua izan zen emakumearen istorioa dakarte egileek.

Elbira Zipitria andereñoa liburuan XX. mendeko euskal historiaren zati bat erakusten da, hezkuntza eta hizkuntza erdigunean jarrita.

Nahiz eta Elbirari buruzko liburua den, hasieratik bukaerara arte erakusten da beti beste batzuekin batera arituta garatu zituela lana eta ideiak. Eta pentsaera eta egiteko modu horien transmisio-katebegia da liburu hau.

Oraindik gaurkotuak diren metodologia eta irakasteko moduak orain dela 70 urte erabiltzen hasi izanak ematen dio Elbiraren ikuspuntuari eta begirada pedagogikoari erdigunea.

Liburua egindakoen gogorazpena izatearekin batera, gaur egun hezkuntzaren inguruan iritzia eman nahi duen edonorentzat irakurketa oso gomendagarria da liburu hau.

Antton Kazabonen eta Jokin Mitxelenaren liburuak oso modu didaktiko eta osatuan eskaintzen du Elbira Zipitria erreferentziazko andereño izandakoaren biografia ilustratua.

Molist, Pep

72 egun eta soineko bat: Nelly Blyren mundu-bira

Ilustratzailea: Ina Hristova

Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun

Bilbo: A Fin de Cuentos, 2024

ISBN: 987-84-19684-18-9

Abentura- eta bidaiia-liburuak maite badituzu, liburu honek eramango zaitu. Nelly Blyren biografian oinarritutako kontakizun bat itzuli dute euskarara A Fin de Cuentos argitaletxeok.

Elizabeth Jane Cochran (*Nelly Bly* ezizenez ezagunagoa) XIX. mende amaierako Estatu Batuetako ezinbesteko emakumezko erreferentea izan zen, abenturazalea eta ikerketa-kazetaritzaren aitzindaria.

Mundu guztiak gogoratzen du Julio Vernek eleberrian kontatutako *Munduari bira laurogei egunetan* (1872) istorioa, baina gutxik jakingo du emakume bat izan zela errekor hori gainditzen lehena 8 egunez, emakumeei bakarrik bidaiatzea gomendatzen ez zieten garai batean eta garai horietako kanonei gailentzen zitzaien bitartean. Gainera, bere bidaiia zehatz-mehatz dokumentatu zuen ia oharkabean igaro den eleberri batean.

Eta hori da, hain zuzen, goraiatzeko diguna album eder honek. Ezinbesteko balio dokumentala duen kontakizunak bidaiia horren kronikaren berri emango digu; *New York World* egunkarian argitaratua izan zela eta garaiko komunikabideetan izan zuen eragin sozialaz ere arituko da. Horretaz gain, Blyren, emakumeen eskubideen aldeko borrokari lotutako ikerketa-kazetari aitzindariaren, testigantza jasoko du, eta lurrun-ontziak edo Kodak kamerak izan zituen garrantziaren testigantzaz ere arituko da garaia erretratatzeko.

Galdu ezin den kontakizuna. Album hau pertsonaiak sakontzeko bidea eskura jartzen duen edizio eta ilustrazio paregabekoan jasota dator.

